

Gerraosteko giro itogarrian

[*Pedrotxo*, 1994]

Juan Luis Zabala

Euskaldunon Egunkaria, 1995-03-12: 32.

Ez nuke han eta hemen behin eta berriz aipatu dena berriro errepikatzen inor gogaitu nahi, baina ezin dut, era berean, esan gabe utzi oso tristea iruditzen zaidala 'Pedrotxo' eleberriaren patua. Oso tristea baita Txomin Agirre saria irabazitako obra egileari zein obrari buruzko aipamenik txikiena ere ez duen liburu aseptiko batean argitaratuta ikustea, literaturaz lekikeen editore baten ukitu mimosoaren arrastorik gabe nolana argitaratutako liburu gordin batean, komunikabideetan ia-ia agertu ere egin ez den liburu galdu batean, kaleratu bezain laster ahaztu eta zokoratuta geratu den liburu fantasma batean. Poztekoa litzateke editore arduratsu batek, argitalpen traidore hau inoiz existitu ez balitz bezala jokatzuz, 'Pedrotxo' eleberriaren berrargitalpen txukun eta homologatua prestatu eta kaleratzea, edozein idazle duinek merezi duen neurrikoa. Ez litzateke antzeko zerbait gertatzen den lehen aldia izango, eta ezta azkena ere seguru asko. Esana dago beraz.

Gerraosteko Andoainen, ama hilik eta aita gerran desagertua, "Etxe Haundiko" mojen babesean bizi den gaztetxea da Pedrotxo. Pedrotxoren aita Peliren adiskide izandako Joxe Arretxe ezagutzen du "Etxe Haundian" Pedrotxok, eta gauza asko ikasten ditu gogotik miresten duen gizon horrengandik. Joxe Arretxe hil ondoren, berak ezer egin gabe –iraganetik datorkion zama bereganatu baino ez–, goardia zibilak bere bila hasten dira eta, "Etxe Haundian" gelditzerik ez duela jabeturik, ihes egin eta, Plazaolako trenean *polizoi*, Iruñera joko du, Joxe Arretxek esanak gogoan beti. Han mundu berri eta gordin bat erakutsiko dion Mertzerekin egingo du topo, eta gero apez baten laguntza jasoko du...

Gordin samarra iruditu zait testua, baina –berriro hasierakora itzuliz– ziur naiz editore saiatu batek, testua astiro irakurri eta egilearekin komentatuz, konponbidea jarriko liekeela gordinkeria sentsazio hori eragin didaten hainbat akatsi; bai hainbat esaldi iluni eta zeinu tipografikoen erabilera bitxiari gutxien-gutxienez.

Liburuko protagonista bera baino pixka bat gazteagoa da Martin Ugalde, baina bere oroitzapenetan oinarritu bide da, neurri handi batean, 'Pedrotxo' idazteko. Askok dira, hain zuzen ere, Ugaldek Andoain bere jaioterriko bazterrei buruz egiten dituen aipamen zehatzak. Gerra galdu zutenek eta haien ondorengoek gerraostean bizi behar izan zuten bizimodu ilunaz jabetu eta gogoeta egiteko parada damaio liburuak irakurleari. pedrotxoren abenturaren bidez, bere aita-amen Joxe Arretxeren, "Etxe Haundiko" mojen, don Martxelen, don Inazioren eta abarren bizimodu ilunen berri izango dugu pixkana-pixkanaka, eta gerraosteko giro itogarrian barneratuko gara.

Ingenuitatea edo lainotasuna egotz dakiok Ugalderen narrazioari zenbait pasartetan –Pedrotxo eta Mertzerekiko harremanen ingurukoetan batez ere–, baina badu bere indarra agian zinemara eramateko batere desegokia ere izango ez litzatekeen eleberri

honetako narrazioak. Egileak berak ere iradoki du, nolabait, liburuaren pasarte batean aukera hori: "*Hau ederra da, egiazko abentura!, zinerako modukoa...*", esaten dio don Inaziok Pedrotxori, honek bere ordura arteko ibiliak kontatu eta gero (121 or.). Esana dago hori ere beraz.